




Gune babestuen izendapena Estatu Batuetan taxutu zen 1872an, gizakien eraginik jasan gabe zirauten naturaguneak mantentzeko xedez. European gizakiak are aztarna zabalagoa utzi du eta, horregatik, ez dira asko guztiz naturalak diren lekuak. Izendatze horren helburu nagusietako bat espezie, habitat, ekosistema eta paisai aniztasuna zaintzea da. Bestalde, turistei horrelako lekuak oso erakargarri suertatzen zaizkienez, diru sarbide garrantzitsua izaten dira bertako biztanleentzat.



Zertan datza gune babestuen kudeaketa?



Toki-Alai. Urkiolako Parkeko Harrera, Argibide eta Azalpen lekua. Patronatuaren egoitza.

GUNE BABESTUEN KUDEAKETAREN erronka handia inguruan bizi diren pertsonen interesak, inguru-nearen babesa eta erabilera jostagarriak orekatztea da.

Ariketa honetan gune babestu baten kudeaketari buruzko ikerketa egitea proposatzen dizuegu. Lehenbizi, ikertu nahi duzuen aldea aukeratu behar duzue eta, ondoren, informazio egokia bilatu (horretarako, deitu kudeaketaz arduratzen diren erakundeetara). Beheraxeago informazioa batzeko gida moduan erabil dezakezuen galdera sorta bat duzue.

Datuak bilduta, aukeratutako gunearen kudeaketari buruzko eztabaida egin dezakezue, sumatutako arazoei erreparatu. Beste aukera bat eurengandik hurbil gune babesturen bat daukaten beste ikastetxe bateko ikasleekin harremanetan jartzea da: lan bera egitea eta bildutako informazioa trukatzeko proposatu ahal zaie. Horrela, bi kasuetan sumatutako arazoak aztertu eta ezberdintasun aipagarrienak zehaztu ahal izango dituzue.

Gune babestuaren kudeaketa

- Nori dagokio gune honen kudeaketa?
- Nola babesten da gunea? Badago hori arautzen duen lege edo manurik?
- Zenbat lagunek dihardute gunearen kudeaketa?
- Zer ekipamendu ditu? Egiten da bisita gidaturik? Badu erakusketara areto edo antzekorik?
- Zenbateko aurrekontua dute kudeaketa gauzatzeko?
- Nortzuk dira lurraren jabeak?
- Zer iritzi dute inguru horretako biztanleek gune babestu izendatzeaz?

Bioaniztasuna babestea

- Orokorrean, erakargarri iruditzen zaiguna babestu ohi dugu: ornodunak eta loredun landareak. Eta horren ondorioz, batzuetan, ekosistemak desorekatu egiten dira, espezie jakin bat gehiegi sustatzeagatik.
- Babestu ahal da espezie bat ehiza edo harrapaketa debekatuz soilik?
- Proposatuta da bioaniztasuna areagotzeko neurririk?
- Urdaibain padurako landareak lekualdarazten ari den landare exotiko bat hedatzen ari da; badago espezie exotikoekiko arriskurik guk aukeratutako gunean?
- Badago kalte edo arazoren bat sortzen duen espezierik? Espezie guztiek dute existitzeko eskubidea? Zer gertatzen da ganaduari eraso egiten dioten otsoekin? Eta sukar tifoidea eragiten duten bakterioekin?

Gune babestuko arazoak

- Zeintzuk dira alde horretako arazo garrantzitsuenak?
- Babespeko guneen inguruan errepedeak egon ohi dira eta bertan animalia asko hiltzen dira ibilgailuek harrapatuak. Badago daturik hemen hiltzen den animalia kopuruari buruz? Nola ekidin liteke?
- Badago gune hau besteren batekin lotzen duen korridore berderik?
- Arazorik eragin dezake turismoak gune honetan?

Zer egin dezakegu?

- Zer egin behar dugu gune babestuak bisitatzean, arazorik ez sortzeko?
- Badago, gure eskualdean, boluntario elkarterik lanean? Zer-nolako jarduerak egiten ditu?
- Ikastetxetik hurbil, badago alde suntsitu edo narriaturik? Zer egin zenezakete hura onbideratu eta babesteko?



Txingudi ekoetxea. Plaiaundiko parkean.



Urdaibaiko Patronatuaren egoitza Gernikan.



Helbide interesgarriak

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU ALDUNDIEN WEB GUNEAK

Horietan bertoko parke naturalei buruzko informazioa, horiek lekutzeko mapak, deskripzioak eta abar aurkituko dituzue.

www.bizkaia.net ● www.gipuzkoa.net ● www.alava.net

EUSKO JAURLARITZAREN LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILAREN WEB GUNEA

www.euskadi.net/laeis

INGURUGIRO MINISTERIOAREN WEB GUNEA

www.mma.es

Gehiago jakiteko

- ◆ E.A.E.ko Ingurugiroaren gaineko Kartografia Sistema, CD-ROM. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz. 2000.
- ◆ LIZAU, X.; MORANTE SERRANO, G.; LODEIRO RICO, M.J.: *Euskal Autonomi Elkarteko garrantziko espazio naturalen katalogo irekia*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 1996.